

LIBURU DENDETARAKO EDELVIVES BALDINTZA OROKORRAK

Jakinarazi nahi dizugu 2021 urterako, **LIBURU DENDETARAKO ESKARIEN PLATAFORMAREN** bidez egin ditzakezula eskariak.

<https://librerias.edelvives.es/es/libreria/login>

Plataformara sartzeko e-mail helbide honetan pedidos@edelvives.es eska dezakezu alta. E-mail jasoko duzu erabiltzaile eta pasahitzarekin.

Gutxieneko eskaria: 20 € garbi.

Gure plataforma erabiltzean izango dituzun onurak:

- ✚ Ez ditugu bidalketa gastuak kobratzen bidalketa zuzenean liburutegira badao.
- ✚ **Eskari pertsonalizatuak egin ditzakezu** bezeroaren etxera zuzenean bidaltzeko (kasu honetan bidalketa gastuak kobratuko dira eskariak ez badu 30 € baino gehiago balio).
- ✚ Grupo Edelviveseko artikuluak eska ditzakezu (Edelvives, Edelvives Comunidad Valenciana, Tambre, Baula, Ibaizabal) + **Ediciones Bilingües Byme.**

SINLI

Sinli plataforman alta emanda bazaude, zure eskariak plataforma honen bidez egin ditzakezu (SINLI eskaeretatik kanpo gelditzen dira Ediciones Bilingües Byme eskariak).

Zer behar dugu?

Zure SINLI helbidea eta zure postontzia. Jar zaitetz gurekin harremanetan helbide honetan: pedidos@edelvives.es

Hona hemen gure datuak:

- ✚ E-mail: sinli@edelvives.es
- ✚ **Kodea:** CSL: L0002264

ZERBITZU BALDINTZA OROKORRAK

Stock gabeziagatik eta bikoiztutako eskariak saihesteko, kontuan izan behar duzu honako hau:

Oro har, banatzeko falta dena gordetzen dugu, baina **bezero** bazara **jasotzean ordaintzeko** moduarekin, **EZ da materialik gordeko.**

BIDALKETA GASTUAK (Baldintza Orokorrak)

Eskariaren gutxieneko zenbatekoa 20 €-koa da

0 eta 30 € artean (garbiak)	Garraio-kostuak: 6 €
31 eta 50 € artean (garbiak)	Garraio-kostuak: 4 €
51 eta 100 € artean (garbiak)	Garraio-kostuak: 2 €
100 €-tik aurrera	Ez da garraio-kosturik ordaindu beharko

ESKARIA JASOTZEA

- ✚ Agentziak igorritako **entrega oharra sinatu eta zigilua bota** beharko zaio.
- ✚ **Salgaien entregari** dagokionez, **gorabeheraren** bat gertatuz gero (**paketeren bat falta, hondatuta egotea eta abar**), gorabehera hori ahalik eta ondoen eta azkarren kudeatu ahal izateko, **entregatzeko egiaztagirian adierazi beharko duzu desadostasunaren arrazoia**; ez ahaztu entrega oharra sinatzea eta zigilua botatzea.
- ✚ **Merkantzia edo bidalketako kopuruak albaranean zehaztutakoarekin bat ez badatoz**, eskaria jasotzen den unetik zenbatzen hasita **bost laneguneko** epea izango duzu **dagokion erreklamazioa egiteko**. Erreklamazio hori incidencias@edelvives.es helbidean egin beharko duzu. **Betiere bezeroaren kodea eta albaran zenbakia jarrita, gorabehera mota eta artikuluaen kodea** ere zehaztu beharko dira.

PRODUKTU JAKIN BATZUEN SUSTAPEN ETA MERKATURATZE ERRESERBA

EDELVIVESek erreserbatuta du errotazio baxuko produktu jakin batzuk bezeroak **ezin itzuli izatekoak** moduan hautatzeko eskubidea.

Itzuli ezin diren produktuen zerrenda www.edelvives.com **webgunean**, zerbitzuko baldintza berezien atalean (Condiciones para Clientes atalean), **zintzilikatuko den zerrendaren bidez jakinaraziko da**, izenburu honekin: **Productos NO sujetos a devolución**. Zerrendan, ISBNa, izenburua eta produktua zerrendara igo zeneko data zehaztuko dira. Data horretatik aurrera izango du eragina itzulketaren murrizketak.

Edelvivesek produktua zerrendan sartu baino lehen zuri, bezero gisa, dagoeneko hornitu eta entregatu dizkizun produktuak ez dira murrizketa horren mende geratuko.

Komertzio jakin batzuetan SUSTATZEKO ETA MERKATURATZEKO ERRESERBA

EDELVIVESek beretzat erreserbatuta du bere produktuak komertzio hauetan sustatzeko eta merkaturatzeko aukera: El Corte Inglés, Casa del Libro, Fnac eta Amazon (azken hori hari lotutako enpresa banatzaileak barne).

ITZULKETAK: TESTUA ETA LITERATURA

Testu edo literaturaren itzulketak egin baino lehen, bai EDELVIVES, bai EDICIONES BILINGÜES BYME onartu beharko dira. Hori dela eta, itzulketaren proposamena devoluciones@edelvives.es / pedidos@bilingualbyme.com helbideetara bidali beharko duzu, onartzen ez bada itzulketari uko egingo zaio.

- ✚ **Garrantzitsua** da oharra beti eranstea, itzuli beharreko materiala zehaztuta.

ITZULKETAK: TESTUA

- ✚ Itzultzeko epemuga: **urriak 10**.
- ✚ Itzultzeko gehieneko muga hornikuntzaren zenbateko garbiaren **% 12** izango da **eta ez da artikuluko jakin batean % 15 gaituko**.

Itzulketen gehieneko mugatik kanpo geldituko dira (artikuluko %12 eta %15) Oporretako koadernoak eta Play Smart koadernoak.

Haur Hezkuntzako etaparako:

% 5eko itzulketaren gehieneko Haur Hezkuntzako Croqueta proiektuan. Produktuari dagokionez konplexutasun handiko produktua izanik, eta produkzio prozesu arrazionala ingurumenarekiko ahalik eta errespetu gehienarekin mantentzeko asmoz, Edelvivesek itzulketen ehuneko gehieneko % 5era murriztu du erreferentzia hauetako fakturazio garbia oinarri hartuta, betiere, liburu dendetarako eskariak gure plataformaren bidez eskatu badira. Ohiko metodo bidez lan egiten dutenen kasuan, ez dute itzulketak egiteko eskubiderik izango.

Ez da onartuko aurreko urteetan erositako liburuen itzulketarik; hori dela eta, itzulitako liburuak **urte berean edo 12 hilabeteko epean** (entrega datatik 365 egun natural) erositakoak izango dira.

Bidalketa gastuak bezeroak hartu beharko ditu bere gain.

Uko egindako eskariak, baldin eta ez bada bidalketa akatsen bat izan, **ezarritakoaren % 12an eta artikulukoaren % 15ean izango du eragina**

Abuztuan/irailean jakinaraziko dizugu testuliburuaren itzulketak egiteko modurik egokiena zein den.

Garrantzitsua da oharra beti eranstea, itzuli beharreko materiala zehaztuta.

ITZULKETAK: LITERATURA

Azken hamabi hilabeteetan/urtebetean hornitutako materialak beste liburu batzuekin trukatu ahal izango dira. Kanpaina espezifikoen kasuan, ez da trukatzeko betebeharririk izango, baina bai 12 hilabeteetan baino gutxiagoan itzultzekoa; hau da, ez dira onartuko azken 12 hilabeteetan erosi ez diren liburuak (entrega datatik 365 egun natural).

Ez ahaztu **eskarietarako, gorabeheretarako eta ordainketetarako, ezinbestekoa dela zure bezero-kodea.**

Horri buruzko edozein zalantza edo aipamen izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan telefono-zenbaki honetara deituta: 800 007 724

Arau hauek gure harremana hobetzen lagunduko dutelakoan, jaso ezazu gure agurra.

Bezero esperientzia saila

GRUPO EDELVIVES